

ETA ZUK ZEIN KOLORE DUZU GUSTUKO?

ialday@irakasle.net

Iñaki Aldai

*Lehen Hezkuntzako edozein kurtsatan egiteko egokia.

* Pertsonaien kopurua nahi beste handitu daiteke (Kolore bakoitzean behar diren pertsonai beste gehituz).

PERTSONAIAK:

. Beltza 1	. Gorria 1	. Berdea 1
. Beltza 2	. Gorria 2	. Berdea 2
. Horia 1	. Urdina 1	. Zuria
. Horia 2	. Urdina 2	

(Bi haur guztiz beltzez jantzita eszenatokira sartzen dira. Izara bat beltzez margotuta zabal zabalik daramate.)

Beltza 1: Ez dago dudarik geu garela munduko kolorerik hoberena.

Beltza 2: Guk ematen diogu kolorea gauzarik inportanteneei.

Beltza 1: Iluntasunari!
(Esaten duten gauza bakoitzeko keinu bat egiten dute).

Beltza 2: Zikinkeriarri!

Beltza 1: Zomorrerik itsusienari!

Beltza 2: Ezertxo ere ez ikustearri!

Beltza 1+2: Indartsuenak gara!

Beltza 2: Munduan ez da beste koloreren beharrik!

Beltza 1: Ongi esana.

Beltza 2: Kontuz, norbait dator. Ezkutatu gaitezen.

(Bi haur goitik behera horiz jantzita sartzen dira eszenatokian. Hondartzako baloi bat eskuan daramate).

Horia 1: Ikusi duzu zein eguzki ederra daukagun?

Horia 2: Jakina. Guk gauza eder askori kolorea ematen diogu eta.

Horia 1: Eguzkiari!

Horia 2: Lehoiei!

Horia 1: Loreei!

Horia 2: Platano goxoei!

Horia 1: Ah, eta ez ahaztu Simpson familiari ere bai.

Horia 1: Utz diezaiogun berriketa egiteari eta has gaitezen jolasean. Pasa baloia!

Horia 2: Badoa!

(Baloia elkarri pasatzen hasten dira. Bitartean, beltz biak bere gerdelekuan jarraitzen dute).

Beltza 1: Arraio beltza!

Beltza 2: Deabru beltza!

Beltza 1: Zer uste dute kolore itsusi horiek?

Beltza 2: Zerbait egin behar dugu.

Beltza 1: Aizu, ideia bat daukat. Gure izara beltzarekin preso hartuko ditugu.

Beltza 2: ideia bikaina! Prest zaude? Bat... bi... eta hiru. Orain!

(Beltzak, gordeleketik atera eta horiak diren haur biak preso hartzen dituzte. - Izara beltzarekin, haur horiak erdian utzirik enrrollatu egin ditzakete eta preso hartu-.)

Horia 1+2: Lagunduuu! Lagunduuuu!

Beltza 1: Mundua hobeto dago kolore horirik gabe.

(Eszenatoki izkina batean preso uzten dituzte).

Beltza 1: Nor da politena?

Beltza 2: Nor da indartsuena?

Beltza 1+2: Beltzak!

Beltza 2: Kontuz, norbait dator. Ezkutatu gaitzen

(Bi haur goitik behera Urdin jantzita sartzen dira eszenatokian).

Urdina 1: Ikusi al duzu zein polita dagoen zerua?

Urdina 2: Bai, urdin urdina.

Urdina 1: Jakina. Guk gauza eder askori kolorea ematen diogu eta.

Urdina 2: Zeruari!

Urdina 1: Itsasoari!

Urdina 2: Begi ederrei!

Urdina 1: Ur tanta goxoei!

Urdina 2: Ah, eta ez ahaztu Pitufo maitagarriei ere bai.

Urdina 1: Utzi berriketa egiteari eta goazen zeru urdinean hegari egitera.

(Biak hegaka hasten dira. Bitartean belzak bere gordelekuan daude).

Beltza 1: Trumoi eta tximista beltzak!

Beltza 2: Zaldiaren buztan beltza!

Beltza 1: Zer uste dute kolore itsusi horiek?

Beltza 2: Preso hartuko ditugu hauek ere. Prest? Bat.. bi... hiru.
Orain!

Urdina 1+2: lagunduuuu! Lagunduuuu!

(Lehen egiten duten bezala urdinak erasotzen dituzte. Horiekin batera eszenatokiko izkinan preso uzten dituzte).

Beltza 1: Mundua hobeto dago kolore urdinik gabe.

Beltza 1: Nor da politena?

Beltza 2: Nor da indartsuena?

Beltza 1+2: Beltzak!

Beltza 2: Kontuz, norbait dator. Ezkutatu gaitzen

(Bi haur goitik behera gorri jantzita sartzen dira eszenatokian. Eskuak eta gorputza berotzeko keinuak egiten dute).

Gorria 1: Hau epeltasun goxoa tximiniako suarena.

Gorria 2: Jakina. Guk gauza eder askori kolorea ematen diogu eta.

Gorria 1: Suari!

Gorria 2: Bihotzari!

Gorria 1: Musu emateko espainei!

Gorria 2: Marrubi goxoei!

Gorria 1: Ah, eta ez ahaztu, Porrotxen sudur barregarriari ere bai.

Gorria 2: Utzi berriketa egiteari, eta goazen San Juan suaren gainetik salto egitera.

(Bata bestearen gainetik salto egiten hasten dira).

Beltza 1: Sorginaren ile beltza!

Beltza 2: Tximinoaren ipurdi beltza!

Beltza 1: Zer uste dute kolore itsusi horiek?

Beltza 2: Preso hartuko ditugu hauek ere. Prest? Bat.. bi... hiru.
Orain!

Urdina 1+2: lagunduuuu! Lagunduuuu!

(Lehen egiten duten bezala gorriak erasotzen dituzte. Beste koloreekin batera eszenatokiko izkinan preso uzten dituzte).

Beltza 1: Mundua hobeto dago kolore gorriak gabe.

Beltza 1: Nor da politena?

Beltza 2: Nor da indartsuena?

Beltza 1+2: Beltzak!

Beltza 2: Kontuz, norbait dator. Ezkutatu gaitzen.

(Bi haur goitik behera berde jantzita eszenatokian sartzen dira)

Berdea 1: *(Arnasa sakon hartuz)* Mmmmm.... hau usain goxoa.

Berdea 2: Naturaren usaina.

Berdea 1: Jakina. Guk gauza eder askori kolorea ematen diogu eta.

Berdea 2: Mendieil!

Berdea 1: Belarrari!

Berdea 2: Landareei!

Berdea 1: Sagar goxoeil!

Berdea 2: Ah, eta ez ahaztu, Hulk Harrigarriari ere bai.

Berdea 1: Utzi berriketa egiteari eta goazen zelaian korrika egitera.
(Eszenatokitik korrika hasten dira).

Beltza 1: Arrano beltza!

Beltza 2: Usteldutako kaka beltza!

Beltza 1: Zer uste dute kolore itsusi horiek?

Beltza 2: Preso hartuko ditugu hauek ere. Prest? Bat.. bi... hiru.
Orain!

berdea 1+2: lagunduuuu! Lagunduuuu!

(Lehen egiten duten bezala berdeak erasotzen dituzte. Beste koloreekin batera eszenatokiko izkinan preso uzten dituzte Momentu horretan haur bat goitik behera zuriz jantzita sartzen da)

Zuria: Zer arraio gertatzen da hemen?

Beltza 1: Hara, falta zitzaiguna.

Beltza 2: Zuk ere egurra jaso nahi al duzu?

Zuria: Zergatik hartzen dituzue koloreak preso?

Beltza 1: Gu gara kolorerik dotoreena.

Beltza 2: Eta indartsuenak.

Zuria: Baina ez al duzue ulertzen kolore guztiak garela beharrezkoak?

Beltza 2: Ezta pentsatu ere!

Beltza 1: Gu gara indartsuenak eta kitto.

Zuria: ondo da. Ez baduzue ulertu nahi nire lagunei deituko diet.

Beltza 1: Zure lagunei? Hau beldurra.

Beltza 2: Hau dardara. Ja, ja ja.

Zuria: (*Deika hasten da*) Hodeiaaaaaa, eguzkiaaaaa, etorrriiii!!!

Hodeia+eguzkia: Kaixo lagun. Zuk esan eta guk bete.

Zuria: Hauxe nahi dut. (*Eguzkiari zuzenduz*) Zuk, daukazun indar guztiarekin izpiak sortu. (*Hodeiari zuzenduz*) Eta zuk ahalik eta euri tanta gehien isuri itzazu.

Hodeia+eguzkia: Hori egina dago.

(Hodeiak eta eguzkiak agindutakoa egiten dute. Orduan preso zeuden koloreetako haurrak, ortzadarra margotuta doagen izara haundi bat guztien artean eskuan dutela preso zeuden tokitik ateratzen dira).

Gorria 1: Begira, guztiok elkartuz indar haundia hartu dugu.

Horia 1: Ez gaitu inork sekula gehiago preso hartuko.

Beltza 1: Ai ene, ai ene

Beltza 2: Ene bada, ene bada.

(Kolore guztien artean ortzadarraren izararekin beltzak enrollatu, preso hartu eta gordelekuan uzten dituzte. Ondoren ortzadarraren izara berriro zabal zabal erakusten dute).

Zuria: Konturatu zarete elkarrekin zein kolore zoragarria sortzen duzuen? Nori ematen diozue kolorea?

Horia: Inauteriarri!

Berdea: Su artifizialei!

Urdina: Udaberriari!

Gorriak: Gozoki dendei!

Zuria: Ez duzue inor ahazten?

Berdeak+gorriak+horiak+urdinak: Nor?

Zuria: Ortzadarra!

Berdeak+gorriak+horiak+urdinak: Egia da!

Zuria: Gora ortzadarra!!!

Berdeak+gorriak+horiak+urdinak: Gora!!!